

ARGIA

1986 Ekaina 15 — XLIX urtea — 1.018. zenbakia — 130 pezeta (BEZ barne) / 7 libera



**TXIRITA:
PISU
HAUNDIKO
ITZAL ZABALA**

*Unibertsitatea
geldirik
PASeko
langileen greba
dela eta*

*ETB-2,
erdara
hutsezko
telebista
martxan*

**JOSEBA ASENSIO
PRESOA
FILIK HEBERERAN**



Txirrita, itzal zabaleko gizon haundia

Txirrita kilo askotako gizona izan zen, eta bere memoriarekiko esker ona ere, urteak pasa ahala, gorantz doa kilotan eta intentsitatean. Berak «nere aitamenak izango dira beste larogei urtian» bota zuen behin bertso profetiko batetan, baina gaur egun inork ez du dudarik egiten larogei horiek beste hainbesteko biderkatu egin beharko direla gutxienez.

Hamar urte zituela hasi omen zen bertsoan Joxe Manuel Lujambio Retegi «Txirrita», eta 1936. urtean hirurogeitama-bost urterekin hil zen arte bertsoak elengabe egiten ibili zen, azkenerako bertsolariarik emankorrenetakoa bihurtu zelarik. Horrekin batera, gaur egungo belaunaldietan utzitako aztarna eta itzala bere gorputzaren tamainako dela esan genezake. Bai, gizon puska genuen Txirrita, «oraintxe ehun eta berrogeitamar kilo ez dago gaizki!» izan omen ziren entzun zizkioten atzeneko hitzak, handik hiru egunera hilobira eramango zuen atakeak ezaguera ez baina ahotsa bai kendu zion igande hartan.

Altzan hil, Hernanin jaio, baina Erreterian bizi

Guztiz baldartua bizi izan zen Txirrita azken urteetan. Altzako «Gazteluene» baserrian, edozein tokitara joateko antolatzaileek bila etorri behar izaten zuten, gauean bueltan ekarri-

ko zutela aginduz. Altzako kaskotik gertu zegoen baserri batetan, gurdi bat egokiturik omen zuten atzetik eskilara txiki batekin, Txirritak taxi modura erabiltzen zuena. Hauteskundeak zirenean ere, Altzako batzokitik gurdia erekin bila etorri zuten zitzaizkion botoa ematera joan zedin.

Altzako «Gazteluene»n baino lehen Erreteriko «Txirrita» baserrian pasa zuen bizitzako parterik haundiena, eta hortik zetorkion izena. Jaio, dena dela, Hernaniko Ereñozu auzoan jaio zen, nahiz eta umetan baserria utzi behar izanagatik, Erreteriko beste horretara joan behar izan.

Ibiltaria bizimoduz, hargina ofizioz

Bere hargina ofizioa zela eta, toki askotan ibili zen Txirrita. Madrilen eta Frantzian ere ibili omen zelarik. Apopilo ibilita, toki askotan utzi omen zuen zora, baina gero bueltan pagatu ere bai. Handik hilabete batzutura edo, baina atzera denak pagatzen omen zituen. Bere gurasoek esaten zioten «Ai, Joxe Manuel, Joxe Manuel, orain sasoiak hagoela bai, baina zaharzen haizenean, ez bahaiz ganbiatzen, istilu gorriak ikusteko hago». Zer egin irakatsi nahi omen zioten. Handik urte askotara, behin Hondarribian apopilo zegoela festak izaki burrunba ikaragarria zegoen, alardea edo, eta etxeoandeari galde-tuta zer zen halaxe esan omen zuen: «Zahartzean istilu gorriak ikusi behar nituela esan zidaten gurasoek, eta oraintxe izango dira ikustekoak!».

Beste batetan ere, apopilo zegoela ordaintzeko itxurak egiten hasi omen zen Txirrita eta etxeoandeari galdetu: «Ba al duzu mila pezetakoaren buelta?», eta «bai» andreak. Orduan, Txirritak: «orduan, ni baino hobeto zaude». Horietako gertae-ra asko, esaten dutenez, batez ere gaztea eta sasoi haundikoa zegoenean.

Apostu eta jokuzalea izaki

Apostuak asko egiten omen zituen tabernetan eta, afariak debalde ateratzeko moduan. Esate batera, harriak pisatzen ibiltzen zen tabernetan. Iguál harri haundi samar bat, Txirritak aldeaz aurretik pisatutakoa, taberna batetara eraman eta gero hura elkarriketan atera, «dexente pisatuko du harri horrek, bai hainbeste baino gehiago» eta inork segitzen bazion elkarriketa, apostua berehala botatzen zuen, eta irabazi. Ez zekien eskribitzen, baina oso buru argiko gizona zen.



55 urte zituen Txirritak argazki hau Arraten atera zlotenean; berarekin batera Olegario eta Gaztelu.

Jokuan ere zalea genuen, bai. Batzutan irabazi, bestetan galdu ere egingo zuen hark, baina halako batetan Altzako baserri batetan partida batzu jokatu dituzte eta Txirritak irabazi. Hasi dira etxera jaisten, baina bidean bere edadeko gizon horrek jo eta labana sartu zion. Labankadak efektoa egin bitartean Txirritak bestea jo eta lurrera bota egin zuen. Halere, Txirrita bera ere lurrera erori zen, eta nahiz medikuak esan hartatik zaila izango zuela ateratzea, bizirik segi zuen.

Bere bizitzako beldurrik haundiena

delat-k Bere bizitzako beldurrik haundiena kupela baten barruan pasa omen zuen. Garai hartan, bilerak eta lagunarteak baserrietan egiten ziren, baina deitu beharra zegoen eta batzuri pasatzen utzi baina besteri ez. Halako gau batetan, Txirritak halako toki batetako atea jo zuen baina ez zioten sartzen utzi. Alde egitekotan zebilenean, hurbiltzen ari diren pertsona batzuren ahotsak entzun zituen: bere kontrario batzuren koadri-la zen, eta kupela baten barruan sartu zen, harrapa ez zezaten. Baina kontrarioei ere ez zien sartzen utzi baserriko nagusiak, eta haiek mendeku gisa Txirrita zegoen kupela lurretik botatzea aritu omen ziren aipatzen behin eta berriz. Txirrita barruan zela jakin balute are gustorago bota zuketean, baina azkenean halakorik egin gabe alde egin zuten. Orduantxe pasa omen zuen Txirritak bere bizitzako beldurrik haundiena.

Zuzenbidearen zentzu sakona

Esanak esan eta pasadizoak pasadizo, bada konstante nabarmen bat Txirritaren bizitza osoan, eta hauxe zuzenbide eta justiziaren jabetze sakona dugu. Bere bertso guztietan —umore puska haundi batekin batera— justiziaren bilaketa dugu nonahi, arrazoi botatzeko orduan. Horra hor, adibide

«Alperra ez, bertsoaren langile»

«B ETI gustatu izan zait Herriaren esanei kasu egitea eta duela gutxi Txirritari buruzko eritzi guztiz zuzen bat entzun nuen, hain zuzen ere bertsolari umorez botatakoa: «Esan ohi da Txirrita alperra zela. Ez dago halakorik. Guztiz langilea izan genuen bere benetako lanbideari dagokiola: bertsolaritza. Jakina, bertsotatik ezin izan zuen betiere ogirik lortu, eta horren ondorioz, harginaren lanbidean ihardun beharra eduki zuen, nahiz eta bere benetako lanean ahalik eta gehiena aritzeko (bertsotan, alegia) hargintzari ahalik eta denborarik txikiena eman». Badiot hauxe egia borobila dela. Txirritta, beste hainbat bertsolari bezala, arlotetzat jo izan da. Izan ere, gutatik desberdin diren gizonak bait dira, eta derrigorrezkoa zaigu halako deitura jar-tzea, gu geu leku txarrean ez geratzeko».

Antonio ZAVALA

on bezala, Artzaia hil zuenari edota Cánovasen hilketari botat-ako bertsoak.

Sagardotegiz sagardotegi ibili zen gizon honek hil baino hiru hilabete lehenago jaso zuen omenaldia Errenterian, aurreko urtean (1936.eko II. Bertsolari Egunean) txapeldun suertatu zelarik. Bere bertsoetan arakatzen segituko duen jendea egongo den bitartean, gizon haundi honen itzala desagertzen zaila izango da, gero eta zailago; areagotuz joango da baina.



Eskubian, Saturnino Erauskin bertsolaria, eta ezkerrean Joxe Manuel Erauskin, Txirritarekin Altzako baserriko kupelaren ondoan.



Herritatik beste bertsolari batekin joateko agintzen ziotenean, Txirritak beti Saiburu lehengusua berarekin eraman ohi zuen (argazkia 1930. urtekoa da).

«Hil da Cánovas...»

Arrasateko Santa Agedan Cánovas hil zuten, hiru tiroz, eta Txirritak gizon horren heriotza zela eta kantatutako bi bertso jasoak dira gaur egun. Cánovas, euskal foruak kendu zituztenean Espainiako buru zen, eta haren alarguna ikusitakoan kantatu omen zituen Txirritak ondoko bertsook:

Hil da Cánovas, fuera Cánovas,	Hiru reloju, hiruna kate,
pikaro gaizki hezia,	hiru mailakin bakoitza,
galdu zituen gari-zelaiak,	buruan iru korona eta
gailendu zaio sasía;	petxuan hiru orratza;
galdu zituen ipar garbiak,	amorioa hiru dobletan
gailendu trumoi nasía,	tximixta bezin zorrotza,
galdu zituen fueruak eta	hiru tirokin utzi zituten
Jaungoikuaren grazia,	zuri senarra hilotza,
galdu zituen bizi-lekuak;	hiru ezpatak zulatzen dute,
galdi du, bere bizia.	señora, zure bihotza.

«Zuk hil zenuen artzaia...»

1885. urtean, karlista gerratea bukatuta, Anton Diostegi zeritzon soldadu bat, bera jaiotako lekura abiatu omen zen, Fagollagara, bere fisola bizkarrean hartuta. Bidean artzai batekin topo egin eta Fagollagarainoko bidea erakusteko eskatu zion. Artzaia gizon armatua ikusita izutu egin zen eta ezetz esan zion, baina soldaduak behartu egin zuen azkenik. Fagollagara helduta, tiroz hil egin zuen.

Gero, urte asko pasata Diostegi hau oso zahartuta zebilen eskale moduan, —larogei urte zituen— eta Txirrita behin Fagollaga inguruan zebilela apostu bat egin zuen lagunekin: baietz gizon hiltzaile hura negarrez jarri. Sartu zen Diostegi tabernara eta berak botatako «egunon» hari Txirritaren lehen bertsoa entzun zen erantzun bakar gisa:

Larogei urte pasatu ditu
dirudiela etsaia,
orain bi hankak arrastaka ta
burua soiltzen hasia,
gizarajuak badu beregan
makina bat desgrazia,
ez dago garai batian bezin
arrua eta lasaia,
beste munduan ikusiko du
hemen hil zuen artzaia.


Diostegik esan omen zuen: «Zergatik ez zidan bidea erakutsi behar neri?», eta oraingoan ere erantzun bakar bezala Txirritaren bigarren bertsoa:

Kulparik gabe bota zenion
fusilako kargazoia,
gizon gaxuak haserretzea
ez al zuen arrazoia,
diabru zaharrak aditzen dute
zure animan usaia,
heriotzaren etor-bildurrak
estututzen du lasaia,
zu baino gizon formalago zan
zuk hil zenduen artzaia.

Orduan Diostegik, basoa kolpean mahai gainean utzita, kanpora alde egin zuen. Handik gutxi hil egin zen.



Joxe Erauskin: «Juergan fenomenoa zen, baina fede haundiko gizona ere bai»



Txirritak sekulako buru argia zeukan ateraldietarako, eta gertatutako milakatatik bakar batzu baino ezagutzen ez baditugu, hona hemen horietako batzu, Joxe Erauskinen ahotik jasoak.

Amak durorik eman nahi ez

Halako batetan, hiru edo lau egun kanpoan pasata, Txirrita goizaldean bueltatu zen etxera, aita-eta lanera joanda zirenean, eta amari:

— Ama, ekarri bost pezeta.
— Bost pezeta behar dituala? (Orduko bost pezetarekin errez bi edo hiru egun juergan). Hire senide guztiak lanean, aita lanean eta hi sasoiko mutila eta alperkerian? Ez dago durorik!

— Bai ama, benga duroa!

Amak ezetz. Orduan ukuiluan behiak eta zekorrak ziren, eta zekor haundi samar bat bazeukaten; Txirritak hartu eta askatu egin zuen zekor hura. Ama korrika eta saltoka zekorra harrapatu nahian baina ezin.

— Joxe Manuel, Joxe Manuel lo ezak zekorral!

— Benga duroa!

— Ez al duk aditzen, Joxe Manuel, lotzeko zekorral!

— Benga duroa!

Amak duroa eman eta Txirritak zekorra lotu egin zuen. Ostera, juerga.

Txirritak azken urteak pasa zituen baserrira jotzen baduzu (Gazteluene, Altzan) Joxe Erauskin topatuko duzu, Txirritari buruz hainbat informazio emateko prest. Antonio Zavalaren eskutik Txirritaren hainbat datu eta bertso gorde dizkigun Joxe Ramos Erauskinen iloba dugu Joxe. Gustora eta gogoz erantzun zituen gure galderak.

ARGIA.— Zuk txikitik ezagutu zenuen Txirrita, nola-koa zen haurrekiko?

JOXE ERAUSKIN.— Bai, gu umeak ginen, ni zaharrena eta gero beste sei txikiagoak, eta hark gehienetan goxokiak ekarzen zizkigun, karameloak ez, baina paxientxiak edo pastelkiak, ia gehienetan. Bakoitzari hiru eman, eta badakizu zer izaten den umea, gu pozik hura noiz etorriko zain. Goxokiak, eta kanikak ere bai, batzutan baloiak... guretzat oso ona zen. Beti aulki berean esertzen zen, hemen sukaldean, eta denbora guztian guri txisteak eta pasadizoak kontatzen. Guk parre, umeak ginen eta.

A.— Bestela, zein da berataz zuk daukazu oroitzapenik freskoena?

J.É.— Lanerako zahartua zen, hona etorri zenerako hirurogei urte bazituen eta nik lanean gutxi ezagutu nuen, bere azkeneko bost-sei urte besterik ez nituen ezagutu. Festak zirenean bere bila etortzen ziren, edo parejaren bat haserretzen

PASADIZOAK ET

Meza pasa dela!

Beste batetan, juerga pasata, festa egin batetako goiz partean Herrera alde-
ra jaitzia zen Txirrita, eta atso batek lialaxe esan omen zion:

— Ze, Txirrita, meza nagusia pasa da!

— Bide honetatik ez, behintzat; akaso beste bideren batetik pasako zan —erantzun omen zion bapatean Joxe Manuelek.

Piza egiteagatik multa

Edan gehiegi ere egin zuen frango, noski, hala zebilenak, normala da. Abildade haundia edateko, baina kupela haundia ere bete egiten da eta hura ere


zenean bertsoak jartzeko etortzen ziren honaino, neska eta neskaren gurasoak nik gogoan dudala hirutan etorri ziren, burla egin ziotelako edo mutilak utzi... Txirritari detailatzen zioten zer nolako mutila zen, zer egin zion neskari, eta handik zortzi edo hamabost egunerako bertsoak jarri. Bueltak jasotzera etortzen zirenean, ordaindu eta listo, hamar duro uste dut izaten zela orduan.

Behin gertatu zen batek bertsoak jaso eta «gaur ez dut dirurik, hurrengoan pagatuko dizut» esan, baina bestea etorri ez, eta Txirritak zer egin zuen? Detailak eman zituen hari bertsoak jarri, eta enteratu zenean berari jarri zizkiola, doble pagatuko ziola baina ez jartzeko, eta Txirritak baietz, baina doble pagatu ondoren jarri egin zizkion eta beraz hiru aldiz ko-bratu.

A.— Berak ez zekien idazten, noski!..

J.E.— Ez, Txirritak ez zekien idazten; ez zeukan firmarik. Horretako nire osaba, Jose Ramon Erauskin, erabiltzen zuen, haren hiloba zena. Eskola piska bai bazuen, eta hark kantatu eta besteak apuntatu. «Orain ere bazeukat bertsoa», eta igual bi edo hiru bertso apuntatu. Orduan hamalau edo hogeikoak izaten ziren sailak, eta osatu arte, batean hiru, bestean bi, horrela. Osaba, Jose Ramon, bazterrean egon balitz, mordoa apuntatuko zizkioken, baina nola ez zegoen bazterrean, lanean zegoen, ba ezin zuen edozein garaitan bertsoak apuntatu. Horrela irabazten zituen sosak.

Gogoan dut igande arratsalde batetan, oso eguraldi ona zegoen eta hor kanpoko petrilean eserita, «karaje, karaje, gaur ere parejaren bat haserratuko balitz!». «Zer ba?» galdetu nion nik, eta berak «Ze ba? Sosak ateratzeko nik horrelakoak behar ditut!».



Joxe Erauskin, gure kontalaria trebea, «Gaztelu-ene» baserriko afitarian.

ATERALDIAK

hustu egin behar, piza egin behar. Behin Donostiako Parte Zaharrean piza egiten hasi omen zen, eta serenoa etorri, eta «multa!» esan omen zion.

— Multa? Zer ba?

— Bai, multa pagatu behar duzu, hemen galerazia dago piza egitea. Horren beste!

— Orduan erdia pagatuko dut, erdia egin dut eta erdia pagatu beharko dut!

Babarrunak ipurditik atera

Toki batzutan ohitura da babarrun motzak zelaian bertan heltzen utzi eta gero atera ipurditik eta dozenaka lotu geroago, negurako kontserbatzeko. Beste batzu, berriz, banaka lekak bildu egiten di-

tuzte. Halakoxe lanean zebilen Txirrita, oso torpetua baina lan samurra egiten bait zituen, kamino bazterrean lekak biltzen. Pasa zaito gizon bat bazterrean eta:

— Zer ari zara, Joxe Manuel?

— Hemen ari nauk, babarrun piska bai biltzen negok eta...

— Guk horiek ipurditik ateratzen dizkiagu!

— Bai guk ere, baina jan eta gero!

Ezetz lanetik despatxatu!

Batzutan ez omen zen lanera joaten, baina langile ona zelako, edo besteek ezin ezin zituzten lanak berak aise egiten zituelako, gehixeago aguantatzen omen

zion nagusiak. Baina, egun batez, hain besteraino aspertu nagusia, beste langileengana joan eta halaxe galdetu ziola:

— Etorri al da Joxe Manuel?

— Ez, ez da etorri.

— Ez dela etorri? Hurrengoan datorrenean, despatxatuko diat ba. Horrelako langilerik ez diat behar nik.

Hurrengo egunean agertu da Txirrita eta besteek esan:

— Hi, Joxe Manuel, badakik zer esan duen nagusiak? Despatxatu egingo haue-la.

— Despatxatu ni? Ez nau despatxatuko ni nagusiak.

Bai eta ez, ez eta bai, azkenean apostua egin. Nagusia zetorrela ikusi bezain laster, Txirritak esan zion bazihola eta kontua emateko. Apostua irabazi ostera, despatxatu gabe berai aldegin zuelako.

A.— Erlilio kontutan, nola ezagutu zenuen Txirrita?

J.E.— Txirrita fede haundiko gizona zen. Eta ez dut inongo liburutan letu, eta ez bertso-paperetan eta ez inon, ez dut Txirritaz halako konturik entzun, beste gauza asko haizatu egin dira, parrandazalea zela, etabar, baina horretaz ezer ez. Fede haundia zuen hark, eta neronek ikusia. Familiako guztiok ikusia dugu Txirrita gela txiki-txiki batetan, eta bazterrean baula, bere gauzak gordetzeko erabiltzen zuena. Eta arratsean, ohera joaterakoan baul hartan eserita bere errezoak egiten zituen, ez liburutik noski, ez bait zekien letzen, baina hantxe egiten zituen. Errosarioa egingo zuen, edo aitagurea, ez dakit, baina nik askotan ikusi dut. Eta hori ez dut inon irakurri. Juegako kontuak, asko, eta egia da, juegan fenomenoia baina fede haundikoa ere bazen. Gauero ez dakit, baina askotan bai.

A.— Zer bizimodu eramaten zuen Txirritak baserri hotetan bizi zenean?

J.E.— Inoiz ez zuen gurekin batera otordurik egiten. Hamarrrak aldera jeikitzen zen hura, eta ordurako gurasoak-eta, goizaldean lanean hasita bederatzitan gosaltzera etorriak, baina hura jeikitzen zenerako, guztiak ostera lanera. Orduan gosari-bazkaria egiten zuen hark, botila txiki bat ardo edaten zuen eta jateko, aurrean jartzten zitzaiona. Lanean ere inork agindu ez, edadekoa zen ordurako, eta gogoa zuena egin eta horretan ere denbora luzetan aritzerik ez. Lan samurrak, eta horrela: babarrunak letu, artoa letu. Surtarako egurra txikitzen pasatzen zuen denbora asko eta asko. Jakina, ibiltzeko torpetua eta bizkarra ezin makurtu baina besoetan indar ikaragarria: aizkora haundia esku bakarrarekin aise manejatzen zuen, burri zirien laguntzaz ere aritzen zen egur txikiketan. Denbora ona bazen, petrilean eseri, eta gero arratsean goiz erretiratu, afari-merienda bat eginda. Txirritak bi otordu egiten zituen: gosari-bazkaria eta afari-merienda. Besteok, lau egiten genituen. Horregatik gutxitan egoten ginen elkarrekin. Gainera, hark mahaian esertzeko biren tokia behar zuen.

A.— Egia al da erderarik ez zekiela?


J.E.— Hitzen batzu akaso bai, baina horrela barra-barra hitzegiteko moduan ez. Badakitzu, esaten da euskaraz ez dagoela maldizioririk, eta hura halakoa zen: nik ez nion inoiz aitu hitz zakarrik edo maldiziorik. Hizkuntza zakarrekoa ez zen, berde samarrak edo berdekeriak nahi baduzu bai, eta juegan ere bai, ikaragarri, baina maldiziorik ez. Behin kastilano batek bertsoa kastilanoz botatzeko eta botatzeko aritu omen zitzaion, berak ezetz eta ezetz baina azkenean bertsoa bat txarra botako zuela eta hantxe hasi zen: «hijoputa, gran cabrón, maricón, vete a tomar por culo, ladrón». Hori hemen etxean askotan entzun dugu, eta egia izango da noski.

A.— Etxean zer bertso giro egoten zen?

J.E.— Nik ezagutu dut hemen etxean sagardoa egitea, eta igual kupela bakarretik txotxean saltzen eta, ibiltzen ginen ahitu arte. Eta jakina, Txirrita bera hortik ibiltzen zen bezala, besteak ere gure etxean, berandu arte edan eta bertsotan, eta gero lotara hemen etxean geratu. Kupela hura ahitzen zen arte oso bertso saio ederrak izaten ziren gauzez etxean. Gero, etxean bertan ere Saturnino Erauskin bizi zen, bertsolari ona izan behar zuen. Txirrita amonaren anaia zen, eta Saturnino aitonaren anaia. Beraz, bi bertsolari etxean, eta askotan aritzen ziren bertsotan. Saturnino gizon retua zen, inora joan nahi izaten ez zuena, eta horregatik ez zuen inoiz plazatan kantatzen.

A.— Jenioz nolakoa zen?

J.E.— Nik esango nuke jenio trankilekoa zela. Orain, nik ezagutu nuenean behartu ere zen egiten, edadekoa eta lanerako modurik ez eta, badakitzu, jai denean, edo lanik ez dagoenean ez da halako jenio txarrik ateratzen. Askotan lanak ekartzen ditu jenioak, ezin arituta, eta gauza bat egin nahi eta gaizki atera... horrek ekartzen ditu jenioak askotan. Pertsona nolakoa den orduan ezagutzen da. Lagunartean jarri mahaian inguruan eta onak asko gara. Pertsona nolakoa den behartzean nabaritzen da, situazioetan. Nik Txirrita behartuta ez dut ikusi, baina jenio trankilekoa behar zuen izan. Hura gizon on bat zen, juegista, hori bai, baina ona.



Datuen bilketa eta erredakzioa:
Ramon ERKOREKA